

¡BIZI NAI!

A MAIKA mokollo, polakra, edo moskorra nai dan izenarekin deituaz, arrapatutako gizasemia zan Boni *Chorišo*.

Eta alare iraun.

Urtietan aurrera zijoan, bañan zurrutian aurrerago.

Gazte zala aundiyak arrapatzen zitun, zartu ta berriz aundiyaguak.

Gaztia zala, mutil koškorak ondotik izaten zituan, abestuz.

Bašo, bašo, bašo

Krak, krak, krak

Mutillen kanta oyek astu ziran, ez ordia Boni *Chorišo'ren* mokollo ikaragarriak.

Kupigarriena, emaztia zan. Ezkondu ezkeroztik etzuben egun bat onik izan. Ustez gizon batekin ezkondu, ta sagi-ardua gertatu zitzaion senarra. Urtiak eta urtiak zeramazkiten itzik alkarri egin gabe.

Lenbizikuan erasotzen ziyon emaztiak alako polakra ikaragarriakin ikusitakoan. Aurrena mancho, mancho, onian artuaz; gero ojuka, dea-darka, karrašika. Dana alperrik. Azkenian etzizon begiratzen ere.

Ez bada betekua izan gure Boni *Chorišo're* ta gaitz gogor batek arrapatu zuben.

Konturatu're etziran lenbizikuan. Oitu bezelako mokollo'ren bat zubelakuan etzizyoten begiratu're. Noizbait ere zerbait izan zitekiela iruditu ta bere gana jua zanian emastia, oso gaizki arkitu zuen, ta sendakiñari deitu ziyon.

Urtietan esagutzen zuben sendakin aditu bat zan. Etorri ta begiratu ziyon ta oso gaizki zegola igarri zun. Ala esan ziyon:

—Boni gizarajua, ire zurrutak lurpera eraman biar aute.

—Jauna, erantzun ziyon itz geldi, apal, isillakin, zurrutak dirala're ikusten du irurogei ta amar urtera irichi naizela.

—Zurrutik izan ez bauben ordia, onezkero larogei urte're osatuko itukan batere bildur gabe.

Alperrik izan ziran sendakiñaren alegiñak. Boni egunetik egunera, gaizkiyago; egiten zuben piška atzera egiten zuben. Etzeukan aurrera-penik batere.

Emazte gajua ordu arte zenarrik ez balu bezela bizi zana, ordu ezkeru senarra'ren aingeru laguntzalle maitetsua biurtu zan. Astu ziztaizkan lenagoko gertaera char guziyak, eta nondik on egingo ziyon, goizetik gabera zebillen.

Asmatu nai zizkan bere gogo guziyak, lagundu naigabietan, oñasietan, antzi larriyetan kupitasunezko malko estitsuakin, ta itz gošo maitetsuakin šamurtu naitasunez. Ori da emakumia eri dagonaren aldamenian.

Ala oso gaizki zegon egun batian, entzunik bere deadar errukariyak, alderatu zan bere gana, ta apal, estitsu, maitaro, emakumiak bakkarrik esaten dakiten izkera, gošo, šamur, atzegiñean, galdetu ziyon:

—Ene zenarra, ¿zer naiko zenduke orain?

—¿Nik, erantzun ziyon Boni'k, miñaren indarrez españak estuturik, ¿zer naiko nuken nik? ¡Bizi!

—Oraindik ere jostaketa gogua al daukazu.

Etziyon besterik, emasteak erantzun.

A. DARRA

